


Planeta gorria, guztietan desiratuena

MARTEREN KONKISTA. Espazioaren konkistan dihardutenek xede bat dute gainerako guztien artean kutuna: Martera iristea, datorren astean urrats berria egingo du NASAk



NASA
Marte planetaren irudi bi.

BIDAIA

Hain urrun dago Marte!

Zaila da oso Martera iristea. Izan ere, urruti dago oso Lurretik Eguzkitik abiatuta lau garren planeta, planeta gorria. Eragozpen asko daude bertara heltzeko. Gehiegi, batez ere helburua makinetara ez denean mugatzen, eta gizakia ere Martera eraman nahi denean.

Esaterako, planeta gorria heltzeko Lurra eta Marte lerrotatzen diren unera itxaron behar da. Hala ere, bide luzea egin beharko lukete astronautek. Parerik gabea: hiru urte. Inoiz ez da horrelako bidaiarik egin espazioan barna eta misterio handia da andra-gizonek nola erantzungo luketen jakitea. Handiegia oraindik behintzat arriskatzeko.

Marten edozer gertatuta ere Lurrarekin ezingo lukete astronautek nahi bezain azkar jarri harremanetan. 40 minutu egin beharko lituzkete harreman emankorra izateko. Horregatik oraindik ere zientzia-fikziozko kontua dirudi gizakia Martera helduko dela esateak. Ahaleginik, hala ere, ez da falta. Gerora begira.

Arantxa Iraola | **DONOSTIA**

Marteko orbitan sartuko da datorren asteazkenean *Mars Odyssey* zunda. NASAk teknikarien aburuz egunsentian jazoko da gertaera. Era horretan orain urte t'erdi Cañaveral Lurmuturrean hasitako bide luzean aro berria hasiko aparailu aitzindariarentzat eta Lurretik haren berri zuzena duten teknikarientzat.

Aro guztietan liluragarriena izango da. Kutunena. Izan ere, espazioaren konkistan ari diren ikertzaileek biziki maite dute Marte ikertu eta egunen batean gizakia bertara hel daitekeela amestea.

Iazko apirilaren 7an jarri zuten *Mars Odyssey* zerura bidean. Ordutik ez da geratu. Segi, segi eta segi egin du aurrera. Agindutako eran 644 milioi kilometro egin ditu, planeta gorriraino.

Orbitatik lanean, bizitza aztarna bila

Orain zunda Marteko orbitan geratuko da eta han egingo du lana, ez da gainazalera jaitsiko. Dena den, daraman tresneria bereziari esker Marteren lurzorua dezente zehaztasunez aztertutako ahal izango du, eta bertako atmosfera zer nolakoa den

jakiteko ere saioak egingo ditu, horretarako ere prestatuta baitago. Egiteko guztien artean ahalegin berezia egingo du

Marten bizitza aztarnak atzemateko, alegia ura edo uraren aztarnak atzemateko. Izan ere, iraganean Marten bizitza izan

zela diote zientzialari askok eta horrek dantzan jartzen du NASAKO ikertzaileen irudimena. Zoratzerraino.

JACQUES BLAMONT | FRANTZIAKO IKERKETA ESPAZIALEN ZENTROKO IKERTZAILEA

«Gizakia ez da Martera iritsiko 2030. urtea baino lehen»»

A.I. | **HENDAIA**

1926. urtean Parisen sortua, espazioaren ikertzaile ezaguna da Jacques Blamont. Ospe handikoa. Gaur egun Frantziako Ikerketa Espazialen batzorde zientifikoan dihardu lanean, eta atzo Hendaian izan zen *Marteren konkista* hitzaldia eskaintzen. Izan zuen tarte txiki bat EGUNKARIA-rekin mintzatzeko ere.

■ **Marteren konkistari buruz mintzatu zara. Gai zabala da. Zer nabarmendu daiteke?**

Marte planeta zer nolakoa den aurkeztu dut, eta esploratzeko zein tankeratako ahaleginak egin diren, eta etorkizunean zer jazo daitekeen. Martera heltzeko asmoz diseinatu diren zenbait ideia eta aparai-

lu exotiko ere aurkeztu ditut....

■ **Izan ere, Martera heltzeko grina handia du gizakia. Zein aurrera pausu egingo dira datozen urteetan?**

Datozen hamar urteetan zehazki iruditzen zait NASArekin ekimenek garrantzi handia izango dutela. Gero gerokoa, izan ere, urteotan egingo diren urratsei esker gero eta gehiago jakingo dugu Marteriburuz, eta beste aro batzuk ere zabalduko dira.

■ **Eta gizakia noiz helduko da Martera? Dat bat jartzerik bai?**

2030. urtea baino lehen behintzat ez da iritsiko.

■ **Zein arazo klaserekin egingo du topo han gizakia?**

Ez dakigu, baina arazo asko izan daitezke, horregatik dira garrantzitsuak orain egiten ari diren ikerketak, hori guztia argitzeko. Agian, litekeena da, esate baterako, bertara doazen gizakiek arazo psikologikoak izatea, baina ez dakigu...

■ **Marten bizitza dagoela dioten susmoak maiz dira albiste. Zuk zer diozu? Bala da bizitzarik planeta gorrian?**

Gainazalean behintzat ez, hori ziur, eta planetaren barrukaldean ez dakigu. Baina segur aski barrukaldean ere ez...

■ **Imajinatzen hasi ezkeror 200 urte barru Marte gizakiz beteta egongo dela imajina dezakegu? Edo askotxo da hori?**

Hori zure irudimena da, ez nire...

Dena den nahikoa argi dute gaur egun zientzialariek Marteko gainazalean bertan ez dagoela urik. Planeta hotzegia da egun bertan ur likidoa egoteko. Horregatik Marten egon daitekeen izotza aztertuko du *Mars Odyssey* zundak. Tentu handiz.

Arantza zaharrak arintzeko aukera

Egiteko guztiak egin beharko ditu tentu handiz zundak, izan ere, NASAk 1999an Martera heltzeko saio bitan porrot itzelak izan zituen. Oraindik biziki mintzen ditu NASAKO ardura-dunak orduan galdutako dirutza guztiak, ahalegin handi asko antzuek izan zirela jakiteak. Horregatik egoera hori gainditzeko ahaleginetan ari dira azkenaldian. Jo eta su. Diru premia dago horren atzean, diru asko behar baitute Martera begira dituzten ekimen guztiak bideratu eta burutzeko.

Izan ere, asmoak handiak dira. Oso. Martera heltzeko egiten ari den ikerketa hauek guztiak helburu nagusi bat dute: gizakia. *Mars Odyssey* zundak Marteko atmosfera ikerztean, esaterako, giza osasunean zein ondorio izan ditzakeen jakin nahi da. Izan ere geroa urrun dagoela diote. Marten.